

GARAPEN IKUSPUNTUEN HELBURUEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK			
Proiektuaren helburu mota	Kontzeptuak		Garapen esku-hartzeen ereduen adibideak
	arazoarena	Konponbidearena	
Ongizatea	Emakumeen txirotasuna. Emakumeen premia bereziak. Emakumeak talde zaurgarri gisa. Maila sozioekonomikorik baxueneko emakumeak.	Laguntza zerbitzuak ematea: osasun arloan, elikaduran, umeak zaintzekoak eta abar.	Haurgintzako klinikak eraikitzea. Osasun klinikak. Inmunizazioa/txertoak. Osasun arloko hezkuntza. Elikadurari buruzko hezkuntza.
Txirotasunaren aurkako ikuspuntua	Emakume azpienplegatuak, ez-emankorrek, mendekoak, ekoizpen gaitasun urrikoak.	Buruaskitasuna eta independentzia sustatzea: ekoizpen gaitasunak ematen ditu, emakumeek enpresa emankorrek sortzeko bidea dakar.	Emakumeentzako diru sarrerak sortzeko proiektuak: emakumeen klubak, xaboi fabrikak, arroz zelaiak, eskolako uniformeak egitea eta abar.
Eraginkortasuna	Emakumeak garapenaren plangintzan aurretiaz kontuan hartutako baliabideak dira. Emakumeak giza ondasun azpigaratua dira, prestakuntza teknikoa behar dute eta baliabideak lortzeko bideak hobetzea.	Emakumeen ekoizpen rolak identifikatzen ditu eta lanaren generokako banaketa onartzen du; emakumeek prestakuntza, teknologia eta behar duten edozein ekoizpen baliabide jasotzeko bideak hobetzea.	Ekoizpen faktoreetan emakume gehiago sartzea: kredituak ematea eta <i>marketing</i> erraztasunak ematea; landa guneeetako emakumeei ere aholkularitza zerbitzuak eta teknologia ematea, emakumeen lanean erabilera eraginkorragoa izan dadin.
Aukera berdintasuna	Desberdintasun egitura. Emakumeen aurkako bereizkeria: eskolatzean, kredituetan, lurak jasotzerakoan eta abar.	Emakumeei aukera berak ematea hezkuntzan eta ekoizpen faktoreetan sartzeko.	Aukera berdintasuna sustatzeko ekintza. Garapenaren plangintza berrikustea, garapen prozesuan emakumeek aukera berberekin esku har dezaten eta onura berberak jaso ditzaten.
Jabekuntza	Generoen arteko botere harreman ez zuzenak. Gizonezkoak nagusi diren gizarteak. Politika eta gizarte mailako erresistentzia, gizonen eta emakumeen aldetik.	Emakumeek garapen prozesuan esku hartzea, ekoizpen baliabideen kontrolean genero berdintasun egon dadin. Horretarako, ekintza kolektiboari kontzientzia harrarazteko eta hura mugiarazteko estrategiez baliatzea.	Erkidego proiektuetarako laguntza. Emakumeen ekintza kolektiboetarako laguntza. Demokratizazioarekin eta ekintza politikoarekin zerikusia duten proiektuak.

Goikoa honako testu honetan oinarritu da: UNICEF, "Igualdad de género y adquisición de poder por las mujeres". Training Package 1994.